

Egunkaria

ASTAZKENA

POLIZI OPERAZIO
Bederatzi gazte atxilotu ditu Ertzaintzak kale erasoekin lotura izatea egotzita

UNIBERTSITATEA

Irakasletza eta Filo...

SUTEA METEORAN

HIRU TXULO

Donostiako astekaria

Egunkaria

EL...
INDIKAL...
LAR...

Egunkaria

MANU MONTERO

Elkide erakunde

«Finantza

Egunkaria

OSTEGUNA

2003ko otsailaren 20a - XIV urtea - 3.789. zenbakia - Salneurria: 0,80 euro



/erdiko orrialdeetan

POLIZI OPERAZIOAK

ITXITA

A. Gipuzkoan bost la...
Nafarroan lau, Bizkaian...
bi, Baltasar Garzon...
ako operazioan.

RBILEKO GATA

Armadak
tinar hil...
an eta

aren zuzend...
zaile taldea»
ilotuei Espain...
ngel Acebes

ZAINZAREN O
ilotutako hiru...
tu dituzte Mac...
omunikazioa «

renegun...
arik bi pres...
zak esan d...
resna» de

LOEM LEGEA

e Parga...
a atze...
zitegi...
nalal

Gai librean

Juan Kruz Mendizabal

Lehenengoa

Zein da zure etxean lehenengoa? Ez dizut galdetzen, irakurle, zein ote den zure etxean galtzak eramaten dituen. Ez eta ere zein den kutunena edo zopa ontzitik lehendabizi hartzen duena sukaldetan.

Espainiakoe esan ziguten aspaldi euren telebistako katea zela lehenengoa. Lehenengoa da Espainian "la primera", baina gure herrian "la primera" ez da primerakoa. Nik ez dut nahi, behintzat. Denbora da euskaldun gehiengook dakigula borroka ez dela bidea, baina bakerako bide bakarra gerra dela azaldu digu Madrilgo bibotetudun txikiak. Bakarra eta lehenengoa.

Bazkal osteko tarte zoragarri horretan, iluntzean kanpoko zaratak baretzen direnean, zein da zure etxean telebistan duzun lehengo katea? Horixe galdetzen dizut.

Elizan gabiltzanok aspaldidanik dakigu iraultza barrutik bakarrik egin daitekeela. Neuk ere halako telebistaren ierarkiaren iraultza txiki bat eskatzen dizut: jarri hankaz gora zure telebistako zerrenda. Hala: lehenengoa ETB1 eta ondoren nahi dituzunak. Lehenengoa gu-rea izan dadin. Azkenean uzten dutena lehenengoa izan dadin. Hortik hasita, gerokoak gero... Gure lehenengoa taberna batzuetan bolumena kendu eta irrati erdaldun bateko ahotsarekin nahasten dutena. Hori gure lehenengoa lehenengoa izan dadin.

Norbaitek esan dezake hau lelokeria dela. Honetan ere hasi behar ote dugun... baina honela ere egiten da herrigintzaren ierarkia. Aniztasunean lehenengoa zein eta nola izatea nahi dugun esanez eta adieraziz. Entzuteko, ikusteko, ulertzeko eta, oinarrian, euskaraz bizitzeko. Hau da nire etxean lehenengoa. Eta zurean?

Euskaldunon Egunkariarekin elkartasuna

Euskaldunon Egunkaria itxi dute. Horrez gain, bertako zenbait arduradun eta beste pertsona batzuk -Txema Auzmendi Herri Irratiko Zuzendaritzako kide eta bagerakidea- atxilotu dituzte, Espainiako Auzitegi Nazionalak agindutako eta Guardia Zibilak gauzatutako operazioan. Hori dela eta, Bagera, Gaztetxulo eta IRUTXULOko langileok honakoa adierazi nahi dugu:

- Euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren kontrako eraso larri hau gogor salatu nahi dugula.
- Euskaldunon Egunkariari, bertako langileei, Herri Irratiari eta operazioan atxilotutako guztiei elkartasuna adierazi nahi diegula
- Euskal prentsaren aldeko apustua irmo defendatzen jarraituko dugula eta ildo horretatik, Euskal Herriak euskarazko egunkaria izan dezan laguntzeko konpromisoa hartzen dugula.

- 4 Hirri Miri • 6. Zertan da?: Zorroaga

Ehorztetxearen egoitza berria

- 8. Zeresana: Baserri birtualak


- 9. Auzoz auzo • 16. Luze zabalean: Euskaldunon Egunkaria itxita

- 18. Elkarrizketa: Odon Elorza alkatea • 20. Kirolak

- 23. Euskara: "Metxa" antzezlanak

- 26. Kultur leihoa: Nabigatzaile donostiarrak Ozeanian

- 28. Zinema • 31. Kultur agenda



**IRU
TXULO**
Donostiako astekaria

Irutxulo: Pedro Egaña 2-1esk, 20006 Donostia.
Argitaratzailea: Donostiako Komunikabideak E.M., Pedro Egaña 2-1 esk. 20.006 Donostia.
Zuzendariak: Ander Usabiaga eta Aitziber Iartza.

Erredakzioa: Ainhoa Irazu, Raul Perez, Ander Usabiaga eta Aitziber Iartza. Tel: (943) 46

72 36. Faxe: (943) 44 65 32. • e-mail: irutxulo@bagera.net. Argazkilaria: Josune Martinez de Albeniz.
Diseinua: Eneko Abrego. Maketazioa: Inge Mendioroz. e-mail: ingemendioroz@bagera.net • Publizitatea: Maria Albillos eta Eli Belaustegi. Tel: (943) 45 72 50 • e-mail: publizitatea@bagera.net Kudeaketa: Ane Irazu Tel: (943) 45 51 38. Harpidetzak: Ernesto Ibarluzea.

Korrespontsalak: Alex Aisa (Igeldo), Gari Otamendi (Añorga), Aitziber Gurutzeaga eta Shandra Castillo (Egia), Xabier Etxabe (Gros-Ulía), Mayi Tolosa (Erdialdea), Urtzi Etxeberria (Amara Berri), Borja Ruiz (Parte Zaharra), Erika Erkizia (Antigua), Laida Basurto (Bidebieta), Aitor Urkizu Azuabarrena (Martutene) eta Sara Soria (Altza eta Herrera).

Kolaboratzaileak: Karlos Lozano, Mattin, Xabier Zaldua, Xabier Otaegi, Ainhoa Etxebeste, Igor Usabiaga, Iñaki Lazkano, Ander Lasa, Ricardo Aldarondo, Koldo Landaluze, Luix Barinagarrementeria, Ixiar Rozas, Maite Gonzalez, Xabier Rubio, Aritz Gorrotategi, Juan Kruz Mendizabal, Iñigo Lamarca, Orreaga Aranburu eta Jon Odriozola.

Erredakzio kontseilua: Luis Fernandez, Iñaki Iturain, Arantxa Kaltzada, Marije Manterola, Josu Landa, Edurne Otamendi, Jone Dorronsoro, Ander Usabiaga, Aitziber Iartza, Alex Aisa eta Alberto Irazu.

Tirada: 5.000 ale. Inprimategia: Antza. Lege gordailua: SS-246/94 ISSN: 1134-0517.

Copyright: IRUTXULO Donostiako Astekaria.

IRUTXULOK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Donostiako Euskararen Udai Patronatua



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua



Eusko Jaurilitzak Kultura Salla

Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ekimenez egina

Pedro Egaña 2-1 esk 20006 - Donostia
Tel.: (943) 46 71 81. Faxe: (943) 44 65 32
e-mail:
idazkaritza@bagera.net • mintzalaguna@bagera.net

Euskaldunon Egunkaria itxi dute

Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Juan del Olmoren aginduz, ostegun goizaldean, Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariaren egoitzak miatu eta hamar lagun atxilotu zituen. Egoitzak miatu ostean itxi egin zituen, eta ondorioz, Euskal Herria euskarazko egunkari nazionalik gabe uzteko saioaren aurrean gaude.

Juan del Olmo Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz, Guardia Zibilak operazioa abiatu zuen ostegun goizaldean. Ostegun goizean bertan jasotako datuen arabera, Guardia Zibilak hamar lagun atxilotu ditu eta Euskaldunon Egunkariaren egoitzak itxi ditu. Halaber, Egunkariaren interneteko edizioa ere itxi dute. Itxierak Plazagunea internet zerbitzu enpresan ere izan du eragina eta ondorioz, hainbat zerbitzu indargabetu dituzte.

Antza denez, Egunkariari ETaren dirua zuritzea leporatu nahi dio Auzitegi Nazionalak.

Atxilotu gehientsuenak Egunkariako ordezkariak edo ordezkari ohiak dira, tarte-

an, Joan Mari Torrealdei, Martxelo Ota-mendi, Iñaki Uria... Atxiloketa hauekin batera, miaketak ere egin zituen Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariaren Hego Euskal Herriko egoitzetan. Andoaingo egoitza nagusira goizaldeko 04.00ak aldera joan ziren eta eguerdia aldera, zigilatu zuten. Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko egoitzetara ere joan zen eta itxi egin zituzten. Egunkariaren egoitzez gain, Argia aldizkariaren Lasarteko egoitza ere miatu zuten. Guardia Zibilak Pello Zubiria Egunkariako eta Argiako zuzendari ohia eraman zuen Argiara, 04.00ak aldera, eta bi orduz egon zen bertan. Argiatik bi ordenadore eraman zituzten. Ikastolen Federazioak Do-

Atxilotuak

Joan Mari Torrealdei: Euskaldunon Egunkariako Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta Jakin aldizkariako zuzendaria. Halaber, idazle ere bada eta makina bat liburu idatzi ditu.

Iñaki Uria: Euskaldunon Egunkariako kontseilari ordezkaria. Euskaldunon Egunkarian egon da sorreratik.

Martxelo Ota-mendi: Tolosar hau Euskaldunon Egunkariako zuzendaria izan da azken urteetan. Aurretik beste zenbait komunikabidetan ibili zen.

Pello Zubiria: Duela hilabete batzuk arte, Argia aldizkariako zuzendaria izan da eta egun Zuzendaritzaren ondokoa da. Euskaldunon Egunkariako lehen zuzendaria izan zen.

Fermin Lazkano: Egunkariako kudeatzaile edo gerente izandakoa.

Luis Goia: Egunkaria Sortzen-eko kidea.

Xabier Oleaga: Euskaldunon Egunkariako zuzendariorde izandakoa. Gaur egun Ikastolen Federazioko komunikazio arduraduna da.

Xabier Alegria: Udalbiltzako kidea. Aurreko legegintzaldian Gipuzkoako Bartzar Nagusietako kidea eta Lezoko zinegotzia izan zen. Hainbatetan atxilotu izan dute, 18/98 sumarioaren eta haren segidakoen baitan.

Txema Auzmendi: Herri Irratiko eta Egunkariako administrazio kontseilueta-ko kidea. Bagerakidea eta Donostian oso pertsona ezaguna da.

Inma Gomila: Euskaldunon Egunkariako gerente izandakoa. Egun Oartzungo enpresa bateko langilea da.




Guardia Zibilak eguerdian zigilatu zuen Martin Ugalde Kultur Parkeko Egunkariaren egoitza.

nostiako Anoeta pasealekuan duen egoitza ere miatu zuten; 04.30ak aldera joan ziren bertara eta hiru orduz egon ostean, ordenadore guztiak eraman zituzten. Jakin aldizkariak Tolosa hiribidean duen egoitzan ere sartu zen Guardia Zibila 07.00ak aldera, eta eguerdira arte aritu zen miatzen.

Egunkariaren erreakzioa

Operazioaren berria zabaldu ahala, Egunkariaren Andoaingo egoitza nagusira Egunkariako langile asko eta hainbat ordezkari politiko, sindikal eta sozial hurbildu ziren. Langileak berehala martxan jarri ziren bi helburu nagusirekin. Batetik, ostiralean bertan Egunkaria Euskal Herriko kioskoetan egon zedin lortzeko eta bestetik, gertaera hau salatzen mobilizazioak eta bestelakoak antolatzen. Horretan, gainera, bertan bildutakoen laguntza eta babesa jaso zuten.

Xabier Lekuona Egunkariako zuzendariordeak, batetik, kezka azaldu zuen 10 atxilotuen egoera dela eta, inork ez baitezkeen non eta zein egoeratan zeuden, eta ondoren, operazioa gogor salatu zuen. *"Euskal Herriaren kontrako eraso bortitzaren baitan kokatzen da, Euskal Herria kriminalizatzeko kanpaina nabarmena baitago. Oraingoan euskalgintzari eta zehazki Egunkariari tokatu zaio, baina aurreretik AEK, Zabaltzen... izan dira"*, esan zuen. Halaber, Egunkariaren ibilbidea gogoratu zuen. *"13 urtez kalean egon gara*



eta urteotan erabili dugun arma bakarra hitza izan da, eta orain armaz itxi gaituzte". Lekuonak deia egin zien herritarrei eta bereziki euskalgintzari erantzun dezaten. Gainera, espreski Eusko Jaurlaritzari eta erakundeei Egunkaria babes dezaten eskatu zien, *"ostiralean bertan kalean izateko eta aurrera egiteko"*.

Operazioak eragindako beste komunikabide batzuek ere oharra kaleratu zuten. Argia kaleratzen duen Komunikazio Bizia-goa S.A.L. enpresak oharra kaleratu zuen.

X. Lekuona: «Hitza izan da gure arma bakarra, eta armaz itxi gaituzte»

Pello Zubiriaren atxilotetan eta Argiak miaketan erabilitako moldeak gogor salatu ostean, Egunkariako arduradun eta langile guztiei elkartasuna adierazi zien *"Euskal kultura eta euskal komunikazioaren eremuan ari garenek egunerokoan erabiltzen dugun hitza izan da gure arma bakarra, eta armaz itxi gaituzte"*, zioen oharra.

Alderdien balorazioa

Operazioaren berri izan bezain pronto alderdi politikoaren erreakzioak berehala izan ziren. IRUTXULOK Donostiako Udaleko ordezkarien iritzia biltzeko saioa egin zuen. EA-EAJko Enrique Aranz zinegotziaren ustez, *"berriro ere argi dago demokraziaren aurkako eraso indiskriminatu baten aurrean gaudela, euskararen eta adierazpen eta iritzi askatasunerako kontrako eraso baten aurrean. Helburu bakar batekin: Euskal Herriko eskubideen aurka egitea"*. Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeko Josetxo Ibazeta zine-

Ez da lehendabiziko aldia

Honakoa ez da Espainiako Justiziak Euskal Herriko komunikabideen aurka egiten duen lehendabiziko aldia. Izan ere, lehendik Egin egunkaria, Egin Irratia eta Ardi Beltza aldizkaria itxi ditu.

Egin egunkaria eta Egin Irratia 1998ko uztailaren 15ean itxi ziren, Baltasar Garzon epailearen aginduz. *"ETAren finantza sarean parte hartzea"* leporatu zion epaileak bi komunikabideen jabe ORAIN S.A enpresari. Operazio berean, poliziak hamaika lagun atxilotu zituen. Gaur egun, bi komunikabideen egoitza itxita dago eta beraien jarduna, debekatuta.

Ardi Beltza hilabetekaria 2001eko apirilaren 27an itxi zuten, epaile beraren

aginduz. Ordurako, hala ere, Pepe Rei zuzendaria atxilotuta zegoen, ETArri laguntza eman izana leporatuta. Garzonen autoak zioenez, Ardi Beltza *"Reiren ustezko jardun deliktiboaren tresna"* zen. Aldizkariak itxita jarraitzen du gaur egun. Aipatutako hiru komunikabideok 18/98 sumario ezagunean sartu ditu Baltasar Garzon epaileak.

Gogoan izan behar da, bestalde, Martxelo Otamendi Euskaldunon Egunkariako zuzendariak iazko urtarrilaren 18an deklaratu behar izan zuela Espainiako Auzitegi Nazionalean, Gara-ko zuzendari Mertxe Aizpuruarekin batera, bi egunkariak ETArekin egindako elkarrizketa argitaratu zutela eta.

Tabernarien Porra Reala-Osasuna

Alotza

Fermin Kalbeton 7
PARTE ZAHARRA

2-1

Hontza

Eliz kalea 5
LOIOLA

2-1

El Txoko de Ramiro

Txofre 4
GROS

2-0

Iratxo

San Juan 9
PARTE ZAHARRA

2-1

Ttanta

Berio pasealekua 15
BERIO

1-2

Ttuntun

San Jeronimo 25
PARTE ZAHARRA

4-1

Txalupa

Fermin Kalbeton 3
PARTE ZAHARRA

1-3

Casa Urola

Fermin Kalbeton 20
PARTE ZAHARRA

2-1

Belfast

Ikatz kalea 9
PARTE ZAHARRA

4-1

Iñausti

Zuatzu kalea 4
ERROTABURU

3-1

otziak esandakoaren arabera, "eraso hau errepresio estratejia orokor baten barnean kokatu behar da, Euskal Herria intsitzeko estrategian. Euskal Herriaren ezaugarri propioak plazaratzen dituzten eragile guztien aurka egiten dute horregatik jo dute Egunkariaren kontra ere". Ibazetak erri gisa erantzun beharra azpimarratu zuen eta jendeari eia egin zion ekimenetan parte hartzeko. PPko Gonzalo Lurogak oso bestela baloratu zuen operazioa. "Beste behin re botere judizialaren iritzia errespetatu behar da. Hau uztenbide Estatuaren aplikazioa da eta ez gara harritu be- aruz Zuzenbide Estatuaren aplikatzen delako". Qui- ogaren ustez, "hau ez da euskararen eta adierazpen askata- unaren aurkako eraso; hori bai, epaileek frogatu beharko lituzte salaketak". IRUTXULO PSE-EEko ordezkariekin harre- nanetan jartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu.

Salaketa ugari

Beste erakunde eta elkarte askok ere gogor salatu zuten Euskaldunon Egunkaria itxi izana. Esaterako, Eusko Jaurlari- zak, Anjeles Iztueta Hekuntza sailburuaren bidez; ELA eta AB sindikatuek... Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko dazkari nagusiak ere hitz gogorak izan zituen: "Euskalgin- zaren aurkako eraso argia izan da". Topagunea Euskara El- arteen Federazioak ere Egunkariaren itxiera salatze- ko oharra kaleratu zuen. Kaltetutako guztiei elkartasuna adierazte- z gain, operazioa "Euskaldunon Egunkariari eta euskarari z- giniko eraso zuzena" dela adierazi zuen. Halaber, euskarar- en eta euskal komunikabideen arloan lanean jarraitzeko leia egin zuen.

